

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 21ean hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu ziren irabazi asmorik gabeko bertoko elkarteek hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren arloan jarduerak gauzatzeko diru-laguntzak emateko 2016ko deialdia eta oinarri arautzaileak

BDNS (identifikatzailea): 321845

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, alegia, Diru-laguntzen Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehenengoa. Onuradunak

Hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren arloan aisialdi eta denbora libre hezitzaileko jarduerak, informazio-jarduerak, prebentzio-lanak eta arreta nahiz gizarteratze-ekintzak gauzatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteak.

Legez eratuta eta inskribatuta egotea Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistroan.

Euren programa eta aurrekontuak botere publikoen kontrolpean jartzea.

Bermatzea botere-organoen osaeran zein funtzionamenduan barne-demokrazia parekidea dutela.

Bigarrena. Xedea

Irabazi asmorik gabeko elkarteek sustatutako hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak, betiere jarduerak Laudio udalerrian egiten badira edota udalerrirako interesa badute.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2016ko urriaren 21ean. 2016ko azaroaren 14an Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren ekonomia-zuzkidura hau da:

3.450,00 euro hezkuntza arloan gauzatzen dituzten ekimenentzako.

10.100,00 euro aukera-berdintasunaren arloan gauzatzen dituzten ekimenentzako.

800,00 euro gazteentzako gauzatzen dituzten ekimenentzako.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

2016ko azaroaren 30a arte.

Laudio, 2016ko urriaren 21a

Alkate-udalburua

JON IÑAKI URKIXO ORUETA